

EUSKALTEGIEN TXOKOA 33. ZENBAKIA

Hernaniko Udal Euskaltegia



Nolako hernaniarra zara?

Ba al dakizu...

1. ... zenbat sagardotegi dau-
den Hernanin ?

- a) 16
- b) 12
- c) 11

2. ... zein basiliza ez den
Hernanikoa?

- a) Zikuñaga
- b) Santa Barbara
- c) Beztizan

3. ... zergatik den ezaguna
Oindi mendia?

- a) Onddo asko egoten di-
relako.
- b) Mendirik altuena dela
ko.
- c) Multzo megalitiko ga-
rrantzitsua delako.

4. ... zenbat kilometro ka-
rratu dituen Hernanik?

- a) 50 km²
- b) 42 km²
- c) 40 km²

5. ... zenbat herrik egiten
duten muga Hernanirekin?

- a) 7k
- b) 5ek
- c) 9k

6. ... zein den Hernaniko
tontorrik altuena?

- a) Oindi
- b) Santa Barbara
- c) Azketa

7. ... zein urtetan eraiki zu-
ten gaur egungo Hernaniko
Udaletxea?

- a) 1875ean
- b) 1899an
- c) 1914an

8. ... gaztetan zer zen Luis
Perez Pascual?

- a) Bertsolaria
- b) Harrijasotzailea
- c) Futbolaria

9. ... noiz inaguratu zuten
Chillida Leku museoa?

- a) 2000ko irailaren 16an.
- b) 1997ko abuztuaren
25ean.
- c) 2001eko irailaren 16an.

10. ... zer esan nahi duen
Orona hitzak ?

- a) Dena ona dela.
- b) On-ona dela.
- c) Denona dela.

11. ... zein hilabetetan egiten
den Hernaniko txotx ire-
kiera?

- a) Abenduan
- b) Urtarrilean
- c) Otsailean

12. ... zein estilotakoa den
San Joan Bataiatzailearen
parrokia-elizaren
barrualdea?

- a) Neoklasikoa
- b) Barrokoa
- c) Gotikoa

13. ... zenbat arkupe dituen
Udaletxeak?

- a) 7
- b) 5
- c) 8

14. ... zenbat txakur zeu-
den erroldatuta Hernanin
2018an?

- a) 3.438
- b) 4.733
- c) 5.615

15. ... zein urtetan eraiki
zuten Leoka garbilekua ?

- a) 1085
- b) 1015
- c) 1016

16. ... zein hirirekin dagoen
senidetuta Hernani?

- a) Semdinli-rekin
- b) Taskent-ekin
- c) Bisekek-ekin

17. ... zenbat ibai pasatzen
diren Hernanitik?

- a) Ez dago ibairik
- b) Bi pasatzen dira
- c) Bakarra pasatzen da

18. ... zer jartzen duen uda-
letxeko balkoipean?

- a) Noble y leal.
- b) Invicta y poderosa.
- c) Noble, leal e invicta.



ERANTZUN ZUZENAK

1/a , 2/c , 3/c , 4/b , 5/a ,
6/c , 7/b , 8/c , 9/a , 10/c ,
11/a, 12/b, 13/a, 14/b , 15/c ,
16/a, 17/c, 18/c

BAREMAZIOA

16-18. Hernaniar peto-
petoa zara eta ikaragarri
maite duzu herria.

10-15. Ez zara oso
hernaniarra. Ez duzu
askorik maite herria.

00-09. Hernanin lo
baino ez duzu egiten.
Bizi zaitez Hernanin,
zoragarria da eta.

Egileak:

Asif Javed, Ahmad
Ayesa Armendariz, Vicente
Agirre Uribe, Sara
García Alonso, Oskar
García Fernandez, Vanesa
Gomez Perales, Santiago
Lopez Requene, Martha
Presas Correyero, Patxi

Irakaslea:

Arrieta Juaristi, Izaskun

Zein da zure film edo telesail gustukoena?



KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL

Nire pelikularik gogokoena Kutsidazu bidea, Ixabel da. Euskara ikasten ari bazara, ondo etorriko zaizu film hau ikustea; izan ere, oso aproposa izango zaizu euskal kultura eta ohiturak zureganatzeko. Baserri batera euskara ikastera doan Juan Martin kaletarra du protagonista nagusi. Komedia baliatuz, bizipen paregabeak igarotzen ditu mutilak bai familian, bai euskaltegian, bai herrian. Azkenik, Ixabelekin biziko duen esperientziak asko aldatuko du bere euskararekiko ikuspuntua eta pentsamendua. Pixkanaka-pixkanaka maitemindu egiten da, eta une goxo eta hunigarriak eskaintzen dizkio irakurleari.

VAYA SEMANITA

Nire telesailik gogokoena EITBko Vaya Semanita da. Ikaragarri gustatzen zait umorezkosaio hau. Gaztelaniaz mintzatzen diren arren, euskal gizartearen ohiturak eta jokamoldeak izaten dituzte hizpide. Zenbait pertsonaia nagusi agertzen dira, eta bakoitzaren gorabeheretan eta komerietan oinarritzen dira esketxak. Horretaz gain, sortzen zaizkien arazoak nola konpontzen dituzten ikusten dugu, betiere kutsu umoretsu eta dibertigarria eskainiz. Lau urteko atsedenaldiaren ostean, berriro ere bueltatu dira aurtan, ustekabean. Telesail hau aukeratu dut haurtzaroa gogorarazten didalako eta ETBn ikus dezakegulako. Vaya Semanita gomendatuko nizueke, barre egiteaz gain, gaur egungo arazoez tartetxo batez deskonektatzeko aukera ematen duelako. Merezki du ikustea. Ez izan zalantzarik. Ez zarete damutuko!

LA CASA DE PAPEL

Telesail bat aukeratzekotan, dudarik gabe, La casa de papel espainiarra hautatuko nuke. 5 atal ditu eta ez da oso luzea. Lehenengo bietan lapurreta bat gertatzen da eta hurrengo hiruretan beste bat. Nahiz eta akzioa nagusi izan, misterio zantzuak ere eskaintzen dizkigu. Pertsonaia ugari agertzen dira, eta bakoitzak xede jakin bat bete behar du istorioan. Hasiera-hasieratik harrapatu ninduen sailak, batez ere, emakumeak direlako akziozko papera antzetzten dutenak, eta ez gizonak. Horretaz gain, emakume indartsu bezain ahaldunak irudikatzen dituzte eta hori da bereziki gustatu zitzaidana.

AKELARRE

Nire fim gustukoena, zalantzarik gabe, Akelarre da. 1609ko Euskal Herrian gitorurik dago, eta 2020an argitaratu zen. Bertan, garaiko neska batzuen istorioa kontatzen da. Egunero basora joan ohi dira ezkutuan dantzatu eta abestera. Hori txarra ez izan arren, Inkisizioak, horren berri izatean, Rostegi deituriko epailea bidaltzen du neskatilak atxilotzera. Dantza eta abesti alaiak deabruarekin elkartzeko helburuz egiten dituztela pentsatuz, torturatu egiten ditu informazioa lortzeko. Esango nuke benetan film interesgarria dela gure arbasoen istorio bitxiak gertutik ezagutzeko, eta horregatik gomendatzen dizuet.

OPPENHEIMER

Azken boladan, gehien gustatu zaidan filma Oppenheimer izan da, Christopher Nolan zuzendariaren azken lana. Oso pelikula luzea da, ia hiru ordu behar dira ikusteko, baina ni adi-adi egon nintzen hari begira. Robert Oppenheimer fisikariaren bizitzaren bidez, estatubatuarrek bonba atomikoa nola asmatu zuten kontatzen da. Istorioa hunigarria da benetan, eta gogoeta pila eragiten dizkizu hurrengo egunetan.

LA REINA DEL FLOW

La reina del flow Kolonbiako telesail bat. 16 urtetik gorakoentzako saila da eta Netflixen ikus dezakegu. Oraingoz 2 denboraldi ditu. Lehenengoa 2018an atera zen eta bigarrena 2021ean. Segur aski hirugarrena datorren urtean ikusi ahal izango dugu. Telesaila, batik bat, musikaren ingurukoa da, eta primeran azaltzen du Kolonbiarrek bizi duten errealitatea. Ni lehenengo unetik harrapatu ninduen. Protagonistari droga sartzen diote mailetan, hark ezer jakin gabe. Estatu Batuetako kartzelan 20 urte igaro ondoren, justizia bila itzultzen da bere herrialdera. Abestiak ere bikainak dira. Niri eta lagunei ikaragarri gustatzen zaizkigu.

Aurten Ereñotzun talde bat du Udal Euskaltegiak



Aurtengo ikasturtean, Ereñotzun euskara-klaseak jasotzeko talde bat sortu da. Hasi A1 mailatik eta C1 mailara bitarteko 8 lagun eta irakaslea biltzen gara, astelehen eta ostegunetan, Txirrita herri- eskolan. Denok gara kanpotik etorritakoak, baina Ereñotzuk beso zabalik hartu gaitu, eta bertan denok elkarrekin bizitzeko, euskara ikasteko edo hobetzeko ahalegina egiten ari gara. Ni Aneli Aierbe naiz, ataundarra eta taldearen irakaslea. Euren aurkezpena egingo dute ikasleek: nongoak diren, noiz iritsi ziren Ereñotzura, zer aurkitu zuten hemen eta euskaraz zer moduz moldatzen diren.



MAITE MARAVILLA

Ni Valentziakoa naiz. 2007an Hernanira etorri nintzen bizitzera, baina Ereñotzun bizi naiz 2011tik, natura, etxe polita eta lasaitasuna aurkitu bainituen hemen. Askok esaten dute oso urruti dagoela Hernanitik, baina auzo lasaia da, inguru polita du ibilaldiak egiteko eta haurrak kalean ibiltzeko konfiantza ematen du. Garraio publikoa, ordea, ez da ona. Euskara ikasten ari naiz, eta BIHOTZA asko gustatzen zait. Hemengo ohituren artean, Santa Ageda ospakizuna iruditzen zait politena: euskal jantzia soinean, makila eta abestien bidez lurra esnatu eta udaberriari deitzea berezia da.



ANA GALÁN

Ni Cintruenigokoa naiz, eta duela 2 urte etorri nintzen Ereñotzura, hemengo lasaitasunagatik. Ez da ezer falta Ereñotzun; Hernani gertu dago, eta denetarik dago. Hemen euskaraz hitz egiten da, eta nik ere Euskaltegian izena eman dut ikasteko. Askok gustatzen zait eta gogotsu ari naiz, alaba txiki bat ere badut eta.



FREDY STOCKLY

Euskaldun eta erdaldun, denek zera galtzen didate: Zergatik ikasi nahi duzu euskara? Zergatik hitz egiten duzu hobeto euskaraz, gaztelaniaz baino? Egia da; esfortzuari begiratuta, ez dauka zentzu handirik: euskara berez zailagoa da ikasteko gaztelania baino, baina abantaila bat dauka: hizkuntzaz aparte, jendea eta kultura ere ezagutzen dituzu, ikuspegi bat hartzen duzu eta mundua euskal begiradatik ikusten duzu. Euskarak, bere egiturak eta kulturak gure burua moldatzen dute, eta hori garrantzitsua da, burutik ikusten eta sentitzen baitugu mundua.



MARTA FONTAN

Ni pasaitarra naiz, eta duela bost urte etorri nintzen Ereñotzura bizitzera. Hemen giro egokia aurkitu nuen nire semea hazteko; izan ere, herri lasaia da, naturaz inguratuta dago eta, gainera, ikastola txiki bat daukagu, oso goxoa, haurrentzat. Dena dela, uste dut harategi bat falta dela eta baita botika bat ere. Orain hementxe bertan euskara ikasteko aukera daukagu auzotarrok, eta ni ere aukera hori aprobetxatzen ari naiz nire euskara hobetzeko.



NAHIKARI BIZARRO

Ni gertukoa naiz, Donostiakoa. Ereñotzura 2019an etorri nintzen, eta gustura nago. Festa eta ospakizun ugari egiten dira, eta niri, adibidez, udazkenean egiten den gaztain-jatea gustatzen zait gehien. Sagardoa edan, dantzatu... Oso ondo pasatu dugu aurten. Bertako bizilagunen artean lagun onak aurkitu ditut. Egia esanda, ez nuen espero hain harreman politak egitea; niretzat familia bihurtu dira.

Nik euskaraz ikasi nuen, eta badakit, baina orain hobetzek aprobetxatzen ari naiz, batez ere idazmenean.



JOSU GONZALEZ

Ni Donostiakoa naiz, baina Huescan bizi nintzen 1996tik 2016ra, eta 2016an etorri nintzen Ereñotzura. Bizitzeko herri txikia, polita eta lasaia aurkitu genuen hemen; Ekaterinari eta bioi gustatzen zaigu. Gainera, frontoia eta parke txiki bat dauka eta udan ibaia ere badugu. Jai eta festa ugari dute, baina niretzat onenak San Antonio jaiak dira. Baina gauzatxo batzuk ere falta dira Ereñotzun: ez dago kutxazain automatikorik eta autobus gutxi! Hemengo jendeak euskaraz hitz egiten du, eta nik pixka bat badakit, baina soltatzeko kosta egiten zait. Euskaltegian gehiago ausartzen naiz. Hitz batzuen soinua asko gustatzen zait, eta gehien gustatzen zaidana pinpilinpauxa da.



RODOLFO SALAZAR

Ni Mexikokoa naiz, eta duela 5 urtetik Ereñotzun bizi naiz. Ingurunea ederra da eta historia aberatsa, baina hoberena jendea da. Dena ez da perfektua, ordea: garraio publiko hobe behar dugu, autobusak maizago, eta kamioi gutxiago. Euskara hizkuntza berezia iruditzen zait, eta jolasean bezala ikasten ari naiz, ezagutzen ditudan beste hizkuntza batzuekin konparatuz. Euskal kultura ere izugarri gustatzen zait: musika (Zea Mays, adibidez), Jazzaldia, Zinemaldia... Ereñotzun bertan ere kultura-bizitza oso animatua daukagu: kontzertuak, antzerkia... eta festa tradizionalak ere bai. Nire gustukoena

Santa Ageda eguna da; asko gustatzen zait makilarekin eta abestiekin lurra esnatzeko erritu hori!



BEN PARHAN

Ni Herbeheretakoa naiz, baina nire bikotea Donostiakoa, eta duela 12 urte inguru iritsi ginen Ereñotzura. Holandan ere herri txiki batean bizi nintzen; beraz, ez zitzaidan kostatu egokitzea. Hemen leku lasaia aurkitu genuen, naturaren erdian, mendian ibiltzeko aukera ematen duena eta ibaian bainatzekoa. Gainera, auzo-bizitza handia dago, eta oso gustura gaude. Ereñotzuk oso izaera euskalduna du, eta oso ondo zaintzen dituzte kultura, tradizioak eta euskaraz bizitzea. Bistan denez, "mugimendu" gehiago duten lekuetatik pixka bat urrun gaude, Hernanitik edo Donostiatik, esaterako, eta gauza askotarako autoa hartu behar dugu, baina nik, zorionez, gertu lan egiten dut, eta horrek bizikleta ere erabiltzeko aukera ematen dit. Euskaraz hitz egiten entzuten hasi nintzenean, "baldin bada" egiturak atentzioa eman zidan; hizkuntza bat menderatzen ez duzunean, soinuagatik edo kontrasteagatik edo maiz entzuten duzulako, zure arreta esaldi edo hitz batzuek erakartzen dute, eta niri baldin bada dantza-izena edo iruditzen zitzaidan. Euskaraz gustuko dudana hitza «IPURTARGI» da. Barregarria iruditzen zait zein zuzen, simple eta dibertigarria den euskaraz gauzak izendatzea.